

## **FUNTSEZKO ELKARTEAK**

Gure enpresak, aurretik aipatu dugun bezala, pertsona nagusientzako eta ezgaituentzako terapia berria eta berezia eskaintzen du. **Terapia berri** bat denez, jende askok ez du ezagutzen, beraz gure ideia da, hurbileko zahar-etxe batzuekin hitz egitea eta bien artean laguntzea. Nola? Demagun norbait datorrela guregana baina guk ez ditugu haren beharrak asetzen ez dugulako hark behar duena. Hori gertatzekotan, elkartu garen zahar-etxera bidaliko dugu eta horrela, hauek bezero bat lortzen dute. Berdina gertatuko litzateke alderantziz izatekotan, norbait zerbait berria bilatzen ari al delako.

Beste aldetik, Espainian zehar dauden gu bezalako zahar-etxeekin, hau da, zooterapia eskaintzen dutenekin, hitz egingo dugu elkar promozionatzeko. Hauen artean, esaterako, **TAS Fundazioa** izango litzateke.

Gainera, animaliekin lan egingo dugunez, hauek lagundu nahi ditugu eta bizileku bat eman nahi diegu. Horregatik, **animalia-etxeetatik edo txakur-etxolatik adoptatuko** ditugu. Zenbait animalia-etxeekin hitz egingo dugu edozein animalia etxe bat behar izatekotan gu deitzeko lehenengo, eta horrela, pertsonak laguntzeaz gain, animaliak lagundu ahal ditugu ere.

1.



2.



3.



Ikusi ahal dugun lehenengo irudia, **TAS Fundazioaren** logoa da, hauekin elkartuko gara, zooterapiarekin lan egiten duten beste zahar-etxe bat direlako, **Andaluzian** kokatuta.

Bigarren eta hirugarren irudiak, animaliak adoptatuko ditugun lekuak dira, biak **Euskadin** daude errazagoa izateko hauek eskuratzea.